

# Aretxagazeta

## Santa Ageda mutilak ohiturari eusteko gertu



ETA GAINERA...

### Ze barri?

ASTEKO GAIA  
**Museo Eskolak**  
eraikuntza berria /8

HURRETIK  
**Andoni Bengoa,**  
Axtrokiko arduraduna /9

LEINTZ GATZAGA  
**Pilota txapelketako**  
finala aurki /10

**GUARDIAKOFARMAZIA**

ZAPATUA, 2  
FRAILE, J. Herriko plaza 10. .... 943 79 21 99  
DOMEKA, 3  
FRAILE, J. Herriko plaza 10. .... 943 79 85 83

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**  
Almen ..... 943 71 49 07  
ARETXAGAZETA ..... 943 79 86 21  
Faxa ..... 943 77 18 54  
Basotxo ..... 943 77 09 81  
Euskaltegia ..... 943 79 21 68  
Gizarte laguntzailea ..... 943 71 18 62  
Hezibide Elkarte ..... 934 79 31 32  
Industrialdea ..... 943 79 62 80  
Institutua ..... 943 79 79 00  
Kirol etxea ..... 943 71 26 28  
Kultura etxea ..... 943 71 10 27  
Kurtzebarri Eskola ..... 943 79 00 49  
Kurtzebarri BHI ..... 943 79 57 40  
Liburutegia ..... 943 71 18 62  
Loramendi EE ..... 943 77 09 70  
Ludoteka ..... 943 79 05 81  
Mankomunitatea ..... 943 79 30 90  
Murruxio ME ..... 943 79 93 74  
Musika Eskola ..... 943 79 36 50  
Osasun etxea ..... 943 79 74 58  
Otalora ..... 943 71 24 06  
Parrokia (Bulegoa) ..... 943 79 18 42  
Pausoka haur eskola ..... 943 77 03 77  
Postetxea ..... 943 79 28 31  
Santa Rita Ikastetxea ..... 943 79 17 00  
Saretxo ..... 943 71 26 56  
Taxi Geltokia ..... 943 79 22 33  
Udal Bulegoak ..... 943 71 18 62  
Udaltzaingoa ..... 943 71 18 63  
Urats Gain ..... 943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**  
Arrasate ..... 943 79 14 39

**LARRIALDIAK**  
SOS Deiak ..... 112  
Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Ertzaintza ..... 943 79 71 99  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
Larrialdia ..... 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Oñati) ..... 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domekak: 11:00, 12:00  
Zapatuak: 19:30  
Lanegunak: 19:30

**SANTA RITA**  
Domekak: 09:00  
Zapatuak: 18:30  
Lanegunak: 08:00

**BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO**  
Domekak: 12:30

**MENDIOLA**  
Domekak: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GELLAO**  
Domekak: 11:30

**OHARRAK**

**ANGER, SERIAL NUMBER ETA VERSUS TALDEEN KONTZERTUA**  
Kepa Urrea espetxeratu zutela 10 urte pasatu direla gogorarazteko, EPEH plataformak eta Aretxabale-tako Askatasunak kontzertua antolatatu dute. Arrasateko Anger eta Aretxabale-tako Serial Number eta VS taldeak arituko dira, 23:30etik aurrera, Ezkutu tabernan.

**ESKUALDEKO MANIFESTAZIOA**  
Kepa Urraren inguruko ekitaldiekin jarraituz, zapatuan, hilaren 2an, eskualdeko manifestazioa egingo da herrian. Ekitaldi hori arratsaldeko zortzietan hasiko da; gero, trikipiteoa egingo da eta, azkenik, 21:30ean, afaria izango dute.

**SAN BLAS EGUNA**  
Aurten San Blas eguna hilaren 3an izan arren, meza otsailaren 2an esango da, Apotzaga-Etxebarrin. Elizkizunak goizeko hamar eta erdietan hasiko dira.

**SANTA AGEDA EKITALDIAK**  
Santa Ageda bezperan, hilak 4, baserriz baserri arituko dira kantuan aurtengo kintoak. Otsailaren 5ean Santa Ageda egunean, kalean batuko dute eta gero, arratsaldeko zazpitan, herriko plazan dantza saioa eskainiko dute.

**LORAMENDIRENAGENDA**

**DIAPORAMA EKITALDIA**  
Otsailaren 7an, *Pirinioak* izeneko diaporama saioa eskainiko du Joxe Ramon Agirrek. Ekitaldia arratsaldeko zazpitan izango da, udaletxe zaharreko bigarren solairuan.

**PINTURA IKASTAROA**  
Pintura ikastaroa antolatze-ko batzarra egingo da otsailaren 18an, arratsaldeko 18:00etan Loramendiko egoitzan.

**ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN**

**Iturbe lantoki zaharra goitik behera bota zuten**

Hondeatzeko makinek hiru egun behar izan zituzten Iturbe lantokia botatzeko. Orain dela bederatzita urte -urtarrilaren 27an, 28an eta 29an- ibili ziren lantoki zaharra botatzen. Egun horietan herritar ugari hurreratu zen haraino, lantoki zaharra zelan jausten zen ikustera.




**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**


*"Txatxurra"*

Hagina.

-Txatxurtxuak miñ emuten dotsue ezta, biotza?  
-Ointxe dauzka txatxurrak urtetzen.



**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Jon Antxia**  
29an, asko. Zorionak donostiarra, Aretxabale-tako koadrilaren partetik!



ARETXABALETA  
**Josu Aizpurua**  
30ean, urtebete. Muxu handi bat eta zorionak! Etxekoak.



ARETXABALETA  
**Puri Beltran de H.**  
2an. Zorionak eta urte askotarako! Etxeko gut-tien partetik.



ARETXABALETA  
**Puri Altube**  
2an. Zorionak eta urte askotarako! Etxeko gut-tien partetik.



LAZKAO  
**Ane Lore Estala**  
2an. Zorionak eta urte askotarako! Eusko batzordeko kideak.

**Zorionak!**  
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETArekin bidez! Ekar ezazu bere argazkia eta emaitza ezusteko ederra!  
**Doan!**  
Udaletxe zaharrean gaude: Durana, 11

BABESLEA  
**Zorionak denoi !!**  
Foto  
**Urkiola**  
Argazkidenda  
HERRIKO PLAZA 5  
20550 ARETXABALETA  
TELEF 943 79 39 20  
\* ESTUDIOAK  
\* EZKONTZAK  
\* JAUNARTZEAK  
\* ENMARKAZIOAK  
\* DIGITAL LANAK  
\* KAMARAK ....  
Beti karretean edo albuma dohanik!

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia  
*...beti herriko ohiturekin*  
Aretxabaleto Industrialdea F-0-4  
Araba Ibilbidea  
20550 ARETXABALETA  
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941  
info@eguzkigraf.com


**Aretz**  
taberna  
Markole, 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

**P-I-E-N-S-O-S**  
**SUNZUE S.A.**  
FELIX PAGALDAN  
Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel.943 77 00 33/79 42 50

**ATREBENTZIAEZPADA/ Santa Ageda mutillen ohitturie galtzen dabil? Ze egin biherko leukie?**



**SABINA IGARTUA**  
Langillie



**EMILIANO ALTUBE**  
Jubilaue




**MIRIAM VÁZQUEZ**  
Langillie



**FELIX BOLINAGA**  
Langillie



**MERTXE ARKAUZ**  
Jubilaue



**GAIZKA MONDRAGÓN**  
Langillie

Euren jokaeriekin, galdu egingo dala uste dot. Lastimie da. Ia ahaleginketan dien lehenguetara bueltetan. Formal jokaketako esango neuskie, jarten dien arauak bete daixiela.

Galtzen ez, baiñe aldaketan bai. Lehen be hartzen zien mozkorak, eta galantak! Baiñe holako kirtenkeritarik ez zan egitten. Juer gan ibilli leike, baiñe formalidade apur bateaz.

Bai, asko aldatu da lehen-dik hona, mutillek eurak beste animu batekin urte-ten daue oin. Etxaflero gutxiago bota daixiela eskatuko neuskie, umiek asko molestetan dittue-eta.

Pentsetan dot ez dala ohitturie, gerra ostien jarritako ohitturie da, ohittura frankistie. Aittejaune hamengue zan eta ez nutzen sekule entzun ohittura horren inguruko ezer.

Bai. Ez da lehengue, geruago eta txarragure doie. Ez dakit ze eskatu. Biher dan moduen ibilli daittezela, bazterrak apurtu barik. Eta etxaflero gutxiago bota ezker, hobeto.

Arrasaten ez dago ohittura hori, eta ez dakit hamen galtzen dabillen. Nik giro sanue ibiltteko eskatuko neuskie. Kontue da ohittura zaharrak zainketie, eta ez astokerixak egittie.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK ERRESPETU FALTA** Santa Kurtz osteko parkea ez du inork errespetatzen. Lehen ere zuhaitzak apurtuta agertu ziren, eta orain beste bi apurtu dituzte: ezki eta ailanto bana. Eta askok adarrak urrututa dauzkate. Farola baten zutabea farolik gabe dago. Txakur kaka ugari dago txintxonetatik oso gertu. Motorrarekin ibiltzen dira pasealekuan eta zelaian. Ez ote da guztiona errua? /M.A.

**ETABARRUAN...**

<p>ASTEAN BEHIN /4</p> <p><b>Santa Ageda mutilak gertu</b></p> <p>Santa Ageda mutilak buru belarri ari dira entseguetan datorren asteکو egunei itxaroten.</p>	<p>ASTEAN BEHIN /5</p> <p><b>Gotzainaren bisita</b></p> <p>Otsailaren 5etik 9ra bitartean Aretxabaletako kristau elkartearekin batuko da gotzaina.</p>	<p>KIROLAK /6</p> <p><b>Nagore Eraña</b></p> <p>Eskolaz kanpoko kirolaz arduratzen da Kurtzebarri eta Luis Ezeiza eskoletan.</p>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

**ASTEKODATUA**

**18**

**MILA EURO EMANGO DIZKIO UDALAK INSTITUTUARI**

Arrasate-Aretxabaleta institutuan egiten ari diren geriatria ikastaroarendako 18 mila euro ematea onartu zuen Udalak asteleheneko bilkuran. Eskoriatzako Udalak 12 mila emango dizkio.

**BESTEKEESANA**

**“Aretxabaletakoa naiz, Gipuzkoan, eta urte asko dira Larrino auzoan bizi naizela. Etxerako bidea oso egoera txarrean daukagu, izugarriko zuloak ditu. Foru Aldundiak esaten digu dirurik ez dagoela konpontzeko, eta Udalak, ez dela bere arazoa. Era berean, auzokideak zergak ordaintzen ari gara, ez ditugun erosotasunak ordaintzen ari gara. Horregatik erabaki dut telefono honetara deitzea, ea denon artean bidea konpontzea lortzen dugun. Izan ere, 13 baserri daude auzoan eta auto bariak geratzen ari gara; zuloak direla-eta auto guztiak hondatzen ari zaizkigu. Hasieran, konponduko zutelakoan geunden, baina urteak pasatu dira eta ez dago konpontzeko itxurarik. Arazoa, oster, ezin da gehiago luzatu.**

**MARI SOL APRIZA**  
ETB-2/02-01-25

**HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga**



*Kamiltxo*

**D**enporatxo bat pasau da Kamiltxo Euskal Herriko etxe askotara sartu zala. Hasieran, askok goguen eukiko douenez, sekuleko poza hartu geuen lehenengo hartz euskaldune eta euskaradune zalako.

Egixe esan biher bada, txaloketakue da holako “jostailu” bat merkaturaketie, eta zorionak emuten dutziet beronen asmatzailiei. Hala ta be, ez gaitzezan geure buruek engainetan itxi, eta hau ez daixela izen gure joka bidien estalki. Guraso askondako hauxe izengo zan akaso erremedixo samurre: “geuaz ezin danez, hartzak erakutsiko dutzo gure neskatuei-mutikuei euskaraz”.

Behin baino gehixautan esan izen da txakurrei eta umiei eiten jakuela berba gehixen euskaraz. Hau horren adinabat gurasok uste izengo daue: “Kamiltxo erregalante umiek iketiko eta eingo dau euskaraz”. Askondako honeaz libraute dau hizkuntzie.

Nik oso ondo ikusten dot seme-alabai holako oparixek eitie, baine ez daigun ahaztu hartz baten eskutik ez jakola eskainiko hizkuntza transmi-nue. Horregatik, aitte-ama dienei, esan gure neuskie, eurak diela euren neskatomutikuei hizkuntzie transmitiruko dutzienak eta ez “jostailue”. Honen aurrien, animau gure ditut holako inbersinuek eitera, baine goguen euki deixiela “Kamiltxo” eurak diela.

Hanka bata aurrera luzetu ostien, penie izengo litzake zenbatzuk holako jarrerie hartu dauielako “Kamiltxo” atzera pausue izetie.

Hizkuntza kontuetan nabilenez, esan bihera dau telebisinuen eta presnan badabilela anunzio bat “Zein ederra euskararen legea, bakotzak berea” esaten dauena. Hau nahiz eta Bizkaiko Foru Aldundiek bultzetutako kanpaina bat dan, geure eskualdean be ederto dator eta erabili deigun!!

**“Behin baino gehixautan esan izen da txakurrei eta umiei eiten jakuela berba gehixen euskaraz”**



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Agedaren eguna

Aurrekoan Kepa Urrari besarkada handi bat bidali genion txoko honetatik, baina gogoratu oraindik bere aldeko hainbat ekin-tza daudela. Gaur gauean kontzertu bikaina izango da Ezkutun. Alde batetik herriko bi talde izango ditugu: **Serial Number** eta **Vs**, eta bestetik, **Anger** talde arrasatearra. Badaukat herriko taldeak ikusteko gogo, burua eta gorputza apur bat mugitzeko. Baina hau ez da Keparen aldeko ekintza bakarra izango. Bihar trikipoteoa, manifestazioa eta amaitzeko afaria izango dira. Giro ona izango da aste bukaeran.

Beste jai edo usadio bat ere gertu-gertu dago, **Santa Ageda mutilena**. Entseguetan ari dira eta antza denez nahiko serio. Ikusiko da Udalak eginko ahaleginak bere fruituak ematen dituen. Ia ba horrela den, bestela ez dute laguntzarik merezi.

Jai kontuak alde batera utziz, aurrekoan Etb-2ko saio batean ikusi nituen herritar batzuk. Gaia Larrinoko eta Arientzako bideak. Auzokide batzuk euren kexa azaldu zuten bideen egoera txarra dela eta. Aurten konponduko dituela esan du Foru Aldundiak, ea egia den. Bestela trakto-rea erosi beharko dute auzotarrek.

Kontuak kontu, aste bukaera dator eta etekini onena atera bi egunei.

**KULTURA** / Santa Ageda bertsoak ikasi dituzte, baita dantzan ere, eta ohituraren berri jakin gura izan dute

# Santa Ageda mutilek ohitura errespetatuz ospatu gura dute otsailaren 5eko jaia

MIRARI ALTUBE

Santa Ageda mutilak direla eta ez direla, bazterretako hautsak harrotuta daude. Ohiturari buelta eman gura izan zion alkateak, baina Santa Ageda mutilekin egindako batzarrek kontrakoa eragin zuten. Santa Ageda eguna gainean da, ikusi egin behar zer gertatzen den.


Santa Ageda eguna gainean dugu eta Santa Ageda mutilak azken entseguak egiten ari dira. Udalarekin izandako tira-birek giroa berotu dute, baina 1983. urtean jaiotako mutilak irten egingo dira bai baserrietara bai etxeetara, kantuan, bai plazara, dantzan.

### TIRA-BIRAK ALKATEAREKIN

Hogeita lau mutil irtengo dira Santa Ageda batzen. Udalaren erabakiaren kontra atera ere. Alkateak hainbat batzarretarako deialdia egin zien, baina mutil bakar batzuek besterik ez zioten erantzun. Askok ez zuten ulertu Udala tartean sartzea, eta mehatxu usaina hartu zieten alkatearen hitzei. "Batzarretara agertu ez izanaren arrazoia ez da interes falta; askok ez dute ulertu Udala tartean sartzeko arrazoia", dio Santa Ageda mutiletako bat izango den Ugutz Usandizagak.

### OHITURA ERRESPETATU GURA DA

Hala eta guztiz, euren eskuetan dagoen guztia egiteko asmoa daukate ohitura errespetatu eta eus-



Ohitura errespetatuz eta barrabaskeriarik egin barik ondo pasatzen dakitela erakutsi gura diote alkateari.

teko. "Badakigu Santa Ageda usadioa derrepentean ezin dela berreskuratu, baina horretan ahalegindu gura dugu", dio Ugutz Usandizagak. "Gabonetatik hona baserrietan hildakorik izan den galdetu dugu, eta hildakoak izan

diren lekuetan abestu edo otoitz egitea gura duten galdetuko dugu. Ezer ematen ez diguten lekuan, bestalde, horretarako egokituta dauden bertsoak abestuko ditugu". Herritarrek errespetuz jokatzeke asmoa dute, eta euren ere

errespetuz erantzutea eskatzen dute.

Helburua ondo pasatzea eta ez, ordea, txarto portatzea. E horixe erakutsi gura diote alkateari. Etxafuegoak botako dituzte, baina "gehienak zerurantz

## LABUR

### Ur sarearen mantenurako hitzarmena sinatu dute Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalak

Astelehenean egindako osoko bilkuran, hainbat auzotako ur sarean hobekuntzak egiteko zein arau jarraitu onartu zuen Aretxabaletako Udalak Eskoriatzakoarekin. Eskoriatzako Gellao auzora, esaterako, Galartzan dagoen ur bilgetitik eroaten da ura.

Iaz, ura eramateko azpiegituran hainbat hobekuntza egin zituzten eta orain, mantentze lanak arautzeko hitzarmena sinatu dute. Antzekoa gertatzen da Eskoriatzako Mendiola eta Aretxabaletako Arkarazo auzoekin, eta arau berberak erabiliko dituzte.

### EAJ-EAk aurkeztutako mozioari ezetza

EAJ-EA alderdiek lehendakariaren eskaera instituzionalean oinarritutako mozioa aurkeztu zuten asteleheneko osoko bilkuran. Gizon-emakumeen bizi-eraketarako, askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea zioen mozioa ez zen onartu.

### San Blas eguna zapatuan ospatuko dute

Otsailaren 3an, domekan, San Blas eguna da. Apotzaga-Etxebarri auzoko Sailuente ermitan, bertan, zapatuan egingo dira ospakizunak. Meza goizeko hamazazpietan izango da eta ostera jatekoak bedeinkatuko dituzte. Antonio Astigarraga parrokoak

# Zubia

oinetakoak



## beherapenak!

Mitarte 14 • 943 79 16 00  
ARETXABALETA  
Biteri 1 • 943 79 66 53  
ARRASATE

# JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte kalea  
ARETXABALETA  
943 77 03 08

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

# Jauregi Okindegia

Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

**GIZARTEA** / Herriko kristau elkarte eta bertako pertsonak ezagutu gura ditu gotzainak

# Gotzainaren bisita jasoko dugu otsailaren 5etik 9ra

MIRARI ALTUBE

Otsailaren Debagoienean ibiliko da On Juan Maria Uriarte Donostiako Elizbarrutiko gotzaina. Datorren martitzetik zapatara bitartean, gure herrian izango da. Bost egunean, Aretxabaletako kristau elkarte ezagutu gura du gotzainak.

Datorren martitzenean, otsailak 5, etorriko dira On Juan Maria Uriarte gotzaina eta Felix Azurmendi bikario nagusia Aretxabaletara. Bost egunean bertako kristau elkarte ezagutu gura dute, ez bakarrik elkarte, baita pertsonak bakarrik ere.

## PASTORALGILE GUZTIEKIN BATZARRA

Antonio Astigarraga parrokoak, pastoralgile eta kristau guztiak gotzainarekin egon ahal izateko programa berezia osatu du. Pastoral Kontseilua osatzen duten kideez gain, pastoralgile guztiekin bilduko dira On Juan Maria Uriarte eta Felix Azurmendi, parrokiez eta parrokiak apai-zez arduratzen den bikario nagusia. Pastoralgileek herriko gorabeherak aipatuko dizkiete, eta Aretxabaletako kristau elkarteak bizi duen egoeraren berri ere emango diete.

Parrokiaren inguruan lan egin duten kristauez gain, zahar eta gaixoei ere egongo da gotzaina, eta gaixoen oliadura ospatuko du beraiekin. Katekesiko pro-

*Kristau elkarte  
ezagutzeaz gain  
pertsonak eta  
arazoak ezagutu  
gura ditu*

*Gura duenak  
gotzainarekin  
bakarka berba  
egiteko aukera ere  
izango du*

*Eukaristia ospatuko  
du kristau elkarte  
osoarekin zapatuan,  
otsailak 9,  
arratsaldeko 19:30ean*


zesu berria abian jarri duten guraso gazteekin ere bilduko da. Beraien ahoetatik jasoko du seme-alabei katekesia erakusteko jarri den sistema berriaren gorabeherak. Batek baino gehiagok aipatuko dizkio bere kezka eta zalan-

tzak. Azkenik auzoetako parrokiak arduradunekin eta agustindar mojekin ere bilduko da Donostiatik datorren bikotea.

Hala ere kristau elkarte ezagutzeaz gain, pertsonak eta euren arazoak ezagutu gura ditu gotzainak. Horregatik, gura duenak bakarrik berba egiteko aukera izango du On Juan Maria Uriarterekin. Interesa duenak Antonio parrokoari bere asmoaren berri eman beharko dio hitzordua jarri diezaion, eta gotzainak pozik egingo dio tartetxo bat bere agendan. Bukatzeko, eukaristia ospatuko du kristau elkarte osoarekin, aldaketarik ez bada behintzat, zapatuan, hilak 9, arratsaldeko 19:30ean.

## ELKARTEA EZAGUTU ETA ANIMATU

On Juan Maria Uriarte orain urte eta erdi pasatxo izendatu zuten gotzain. Poliki-poliki bere elizbarrutiko parrokiak ezagutzen ari da, eta oraingoan gurera etortzea tokatu zaio. Elkarte eta parrokiak ezagutzeaz gain, laguntasuna eskaini eta kristau elkarteak animatzea ere gura ditu, izan ere badaki zeintzuk diren parrokiek dituzten arazo eta kezkak: kristau elkarte gero eta zaharragoa, gazteek elizara hurbildu nahi ez, gero eta apaiz gutxiago... Eliza eta herriko parrokiak barruan kristau bakoitzak dituen ardurak ere gogoraziko ditu, eta ardura hauei heldu behar garrantzia azpimarratuko du.



## Kepa Urraren aldeko hainbat ekitaldi

Kepa Urria preso aretxabaletarrak hamar urte bete zituen kartzelan joan zen martitzenean. Hori dela eta Aretxabaletako EPEH plataformak eta Askatasunak hainbat ekitaldi egin dituzte aste osoan. Martitzenean, esaterako, kale agerraldia egin zuten, eta eguaztenean Etxaniz preso ohia izan zen hitzaldia ematen. Oraindik, ordea, ez dira bukatu ekitaldiak. Gaur, egubakoitza, Anger, Serial Number eta Vs taldeen kontzertuak izango dira, eta bihar, manifestazioa eta afaria. /M.A.

## LABUR

### Kultura teknikari eta teknikari laguntzaile lanpostuak eskuratzeko bigarren azterketa

Atzo, urtarrilak 31, egin ziren kultura teknikari eta teknikari laguntzaile postuak eskuratzeko bigarren azterketak. Kultura teknikari lanpostura barruko langileak baino ezin zitezkeen aurkeztu, eta Inma Miguel izan da aurkeztutako bakarra.

Kultura teknikari laguntzaile posturako lehenengo azterketa 23 lagunek egin zuten. Aurkeztutako artetik 11 lagunek gaitzitu zuten hura eta bigarren azterketa ordenagailuari dagokiona izan da. Euskararen inguruko ere egingo da.

**Eskoriatzan salgai partzelak eta etxebizitza adosatua**

Promotoreak baimendutako agenzia bakarra

**Udalatx Inmobiliaria**

Tel.: 943 79 59 99  
Faxa: 943 79 92 00  
Maalako Errabala, 27 behe-ek. ARRASATE

*Jou Diaz*

*Karakina*

Loramendi, 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

**M**

**MEMESA**


Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19  
ARETXABALETA

**PAGALDAI**

*Opari denda*  
*Lurrindegia*

Durana, 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14

 **Zenbaki**

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

**MAITE**

ileapaindegia

Sarasate, • 943 79 59 05  
ARETXABALETA

**GARBITU S. KOOP**

*Garbiketa orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28

**ITURGINTZA**

**J.J**  
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA  
943 79 31 87  
ARETXABALETA

NAGORE ERAÑA/ESKOLAZ KANPOKO KIROLEKO KOORDINATZAILEA

# “Txikitatik sortu behar da kirolarenganako zaletasuna”

MIRARI ALTUBE

Urtero legez, Diputazioak eskolaz kanpoko kirola lantzeko diru laguntza eman du udalen bitartez. Almen ikastolak, Kurtzebarri eskolak eta Luis Ezeizak parte hartzen duten proiektuan Nagore Eraña da koordinatzaileetako bat.



### Eskolaz kanpoko kiroleko koordinatzailea zara, noiztik?

Bai, Kurtzebarri eta Luis Ezeiza eskoletako koordinatzailea naiz. Iaz hasi nintzen lan honetan eta bigarren ikasturtea da aurtengoa.

### Zein da zure egitekoa?

Entrenamenduetako egutegia osatzen dut, ordutegiak antolatzen eta kirol instalazioak begiratu. Aste bukaeretan jokatzeoak diren partiduak ere antolatzen ditut.

### Batzorde bat ere badago atzean?

Bai, orain bi hiru urte jarri zen martxan eskolaz kanpoko edo multikirolaren proiektua. Almen, Kurtzebarri eta Luis Ezeiza eskoletako guraso eta irakasleek osatzen dute batzordea, eta Almeneko koordinatzailea Jesus Arregi da, ni berriz, beste bietakoa.

“Gaurko umeak mila gauzatan sartuta daude, eta egutegiak bateratzea ez da samurra”

Zein kirol antolatzen da?  
Bat baino gehiago antolatzen

dira adinaren arabera. Aurrebenjaminen, 6-7 urteko umeek, psikomotrizitatea lantzen dute. Benjaminen, hiru kirol lantzen dituzte urte osoan, aretoko futbola, saskibaloia eta eskubaloia. Alebinez, bai neskek bai mutilek, bi kirol aurkeratzen dituzte, eta infantilek bakarra, areto futbola, eskubaloia eta saskibaloia artean. Urte osoan gero, kategorien arabera txapelketak jokatzen dituzte.

### Beste eskola batzuen artean badago harremanik?

Bai, Almen, Kurtzebarri eta Luis Ezeizako benjamin eta alebinez elkarren aurka jokatzen dute. Alebinez txapelketak gero Gipuzkoako txapelketara joaten dira. Infantilen kasuan, Debagoienerako eskolen artean egiten dira txapelketak.

### Garrantzitsua da gaztetxoek kirola lantzea?

Bai horixe, txikitatik sortu behar da kirolarenganako zaletasuna. Kirol bat baino gehiago erakusten zaie aurrera begira gustukoena lantzeko aukera izan dezaten. Kirola ardatz hartuta, hezteko beste era bat da. Gaurko umeak bestalde, mila gauzatan sartuta daude, eta egutegi eta ordutegiak bateratzea ez da batere samurra.

## IGERIKETA

### Igeriketa eta Aquagym ikastaroak antolatu ditu otsailerako Udal Kirol etxeak

Udaleko Kirol etxeak igeriketa ikastaroa antolatu du otsailaren 4an hasteko. Hastapen eta hobekuntza ikastaroa emango dute. Taldea osatzeko, osterara, gutxienez zortzi lagun beharko dira. Orduztatia, 10:00etatik 10:45era eta 19:45etik 20:30era izango da. Aquagym ikastaroa ere abian jarri gura da. Uretako gimnasia hau ezagutzeko doaneko sarrera eta saioa eskaintzen dira.

## PALA TXAPELKETA

### Gomazko paletaz jokatzen duten pilotazaleentzat pala txapelketa antolatu da

Aretxabaleko Kirol etxeak gomazko paletaz jokatzea gustuko duten pilotazaleentzat txapelketa antolatu du. Txapelketa otsailaren 16an hasiko da. Lehenengo fasea liga eran jokatuko dute eta bigarrena, kanporaketa gisa. Debagoienerako txapelketa zirkuiturako puntuagarria da gainera. Txapelketa binaka jokatuko dute, eta izena emateko epea otsailaren 13an bukatuko da.

## JOKATZEKOAK

### FUTBOLA

UDA-Tolosa  
Preferentea.  
Domeka. 16:30. Ibarra.  
UDA-Ordizia  
Bigarren mailako erregionala.  
Zapatua. 16:00. Ibarra.

### PILOTA

Arexab.-Beharzana  
Bigarren mailako gazteak.  
Arexab.-Beharzana  
Arexab.-Txapagain  
Seniorrak.  
Eguakotxa. 19:30. Iturigorri.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Irun 1902 1 UDA 1  
Preferentea.  
UDA 4 Lagun Onak 2  
Gazteen Euskal Liga.

Behobia 1 UDA 5  
Bigarren mailako erregionala.  
UDA 2 Urki 2  
Bigarren mailako gazteak.  
Euskaldunak 3 UDA 5  
Lehenengo mailako kadeteak.  
Kostkas 12 UDA 0  
UDA 3 Landetxa 1  
Bigarren mailako kadeteak.

### PILOTA

Udaberriko Torneoa  
Hernani 22 Arexabaleta 8  
Kadeteak.  
Zurriola 22 Arexabaleta 12  
Bigarren mailako gazteak.  
Hernani 9 Arexabaleta 22  
Bergara 9 Arexabaleta 22  
Lehenengo mailako gazteak.  
Goierri 21 Arexabaleta 22  
Seniorrak.  
Debarroko Txapelketa  
Aretx. 3 Bergara 22 Kadeteak.  
Aretx. 22 Bergara 2 Gazteak.

Okindegia - Panaderia - Pasteleria

# Aretxabaleta Okindegia

Elaboración Artesanal

Basabe, 2 Tlf. 943 77 00 81  
Loramendi, 6 Tlf. 943 77 17 19  
Aretxabaleta  
Zarautza, 10 Tlf. 943 77 20 16  
Aretxabaleta

# San Blas

Okindegia - Panaderia - Pasteleria

Aretxabaleta

Loramendi, 6 (943 77 17 19)  
Basabe, 2 (943 77 00 81)  
Aretxabaleta. Bertako okina

## ATXABALTARRAKMUNDUAN

### IÑAKI SAGASTA

LANGILEA / LONDRES

# “Londres oso kosmopolita da; niretako, kultura askoren topalekua da”

AMAGOIA LASAGABASTER

**A**ldatzeko beharra zeukan Iñaki Sagastak, eta horrexegatik joan zen Londresera. Gainera, ingelesa ikasteko asma ere bazeukan. Horrela, maletak gertatu eta Erresuma Batura abiatu zen. Hasiera baten, hiru bat hilabeterako joan zen. Eta orain, hiru urte geroago, Londresen jarraitzen du Iñakik. Han jarraitzeko arrazoiak honakoak dira: lagunak, lana eta han gustura sentitzea.

Walthamstonw izeneko auzunean bizi da, Londres erdigunetik nahiko urruti, iparraldean. Hala ere, lanagatik edo bestelako arrazoiengatik sarri-sarri hartu ohi du metroa Picadilly edo Soho auzuneetara joateko, besteak beste. Izan ere, hantxe dago Iñakiri Londrestik gehien gustatu zitzaiona, jende askoren batura: “Londres oso kosmopolita da; niretako, kultura askoren topalekua da, eta, beharbada, horregatik erakarri ninduen hasieratik”. Bestalde, Iñakik ez du gustuko Londresko erritmo bizi eta azkarra, hiri estresagarria dela dio. “Londresen bizi-modu lasai eta egokia egiteko, lagunak eta lan ego-kia izatea oso garrantzitsua da, bestela,

askotan oso bakarrik senti zaitzke”

Iñakik oraindik ez du topatu gustuko lanik, baina lagunak, behintzat, ez zaio falta Londresen. Eta lagun kontuak aipatuz, hemengoak ere ez dituela ahazten argi dago: “Urtean hiru bat aldiz bueltatzen naiz herrira familia eta lagunak bisitatzera, eta, batez ere, lasaitasun eta erosotasun bila”

*“Urtean hiru bat alditan bueltatzen naiz herrira, lasaitasun eta erosotasun bila”*

Elkarrizketa amaitu baino lehenago, ostera ere herrira bizi izatera noiz etorriko den galdetzean, Iñakiren erantzuna argia izan da: “Batek daki, baina bizpahiru hilabete barru hemen egon naiteke”. Bai, halaxe da, hiru hilabete barru hemen egon daiteke, baina ezin guztia sinistu; Londrese ere hiru hilabeterako joan zen, eta dagoneko hiru urte daramatza Erresuma Batuan.



## HURRETIK



### Igor Bastardo

Pake epaille

Fan den urtien ekin zan Igor pake epaille lanak egitten. Izetaz, abogaue da. Oin, Atxabaltan bizi da, baiñe Mondraguen jaixo zan. Hona, UDAK egindako fitxajiek ekarri euen.

**Zein lan egitten dozu pake epaille moduen?**

Jaixo, hil edo ezkonketan dienen papalak firmetan dittut; hori eguazteno egin biherrekue da. Zapatuetan, barriz, ezkontza zibillek eukitten dittut.

**Oin arte, zenbat bikote ezkondu dittuz?**

Uste dot hiru izen diela.

**Eta zelakue da zeremonixe zibille?**

Nik pentsetan neuen askoz be serixua-gue izengo zala, baiñe 15 miñutuko zeremonixe izeten da; eta, neure kasuen, kafe hartzera fango balitz moduen etorri da bikotie ezkonketan, ez arrozik, ez trajerik, ez eraztunik, ez ezer be.

**Zuk ze dozu gurago, elixatik ala zibilletik ezkonketie?**

Elixatik. Zeremonixe zibillek oso hotzak diela uste dot.

**Santa Ageda mutillen ohitturie gal-tzen dabilela uste dozu?**

Arazuek badagoz, baiñe berba egiñez dana konponketan da.

**Eta Karnabaletako disfrazta prepa-rauta daukotzu?**

Ondiokan ez, betiko moduen azkenengo egunien pentsautako difrazten batekin urtengo dot kalera.

**Herriko ze jai die parrandan egitte-ko onenak?**

San Migelak.

**Mondrague ala Atxabalta gurago?**

Atxabalta.

**Afiziño bat?**

Jeneralien kirola, eta batez be futbola.

**Reala bigarren mailan ikusten dozu?**

Ez, bukaeran salbauko diela seguru!

A.L.

## NIREBIDAIAHURA / Miren Berezibar

EEBB / 2000ko uztailetik abuztura

**M**irenek bidaia luzea egiteko gogo zeukan, eta, bi bider pentsatu barik, New Yorkerako joan-etorriko hegaldi-txartela erosi zuen. Hasieratik bidaia turistikoa antolatu zuten, eta hilabete hainbat leku bisitatu zituzten.

Lau lagun artean autoa alokatu eta, besteak beste, New York, Washington, Niagara, Toronto, Montreal, Ottawa, Quebec, Vermont, Boston eta Cape Cod hirietan izan ziren. Guztira 7.500 kilometro egin zituzten. Bidean, hiri handiez gain, herri txikiak era bisitatu zituzten; eta bi horien arteko aldea izugarri dela azaldu digu Mirenek: “Aurkitutako aniztasunak asko harritu ninduen. Alde handia dago, esate baterako, New Yorken dagoen zaratatik, kaosetik, usain txarretik eta estresetik, herri txiki bateko lasaitasun eta goxotasunera”.

Gainera, hirietan autoz ibiltzea ez zen oso erraza izan behar, eta, horren ondorioz, oroigarri bitxiarekin bueltatu ziren Miren eta lagunak: “Hiri handietan ikaragarri zaila da autoa aparkatzea, eta Toronton, azkenean, isuna jarri ziguten”. Bestalde, eta istorio bitxiekin jarraituz, aterpetxe arraro baten lo egin zutela esan digu Mirenek: “Ottawan lehenago kartzela baten kokatu dute aterpetxea. Gainera, barrualdetik garai bateko espetxearen estruktura bera utzi dute, hortaz, gau hartan burdina artean egin genuen lo”.

Azkenik, Mirenek aipatu digunez, orain arte egin izan dituen bidaia guztietan beti ikasi du zer edo zer, eta, jakina, Estatu Batuetara egindakoak ere asko balio izan dio: “Bidaia guztietan ikasten da zerbait, eta nik kontatu berri dizuedan honetan, New Yorki eta haren tankerako hiri handiei beldurra kentzea lortu nuen”.

A.L.



Miren, Ainhoa eta Iñigo, Manhattan atzealdean dutela.



*“Hiri handietan ikaragarri zaila da autoa aparkatzea”*

*“Ottawan, kartzela antzeko batean egin genuen lo”*



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

# Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko otsailaren 1a / 66. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana, 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

## Museo Eskola Ibarrundi jauregian kokatuko da bi urte barru

AINTZANE GARDOKI

Datorren hilean hasiko dira Ibarraundi jauregia zaharberritzeko lanak. XV. mendeko jauregian Museo Eskola berria kokatuko da. Jauregian egingo diren lanek museoak egun dituen beharrei erantzungo diete. 2003ko irailean amaituko dira zaharberritze lanak.

Ia 500.000 euro beharko dira Ibarraundi jauregia zaharberritzeko. Debagoienean garrantzi handiko eraikuntza izan da XV. mendeko jauregi hori. Orain dela gutxi arte etxebizitza izan den jauregi horretan laster hasiko dira zaharberritze lanak egiten, eta datorren urteko irailetik aurrera kulturari eta ondareari eskainiko dizkie bere horma sendoak.

### MUSEOARI EGOKITUTAKO LANAK

Zaharberritze lanaz arduratuko diren teknikarien arabera, jauregiaren egoera arkitektonikoa ez da ona. Foru Aldundiko Kultura Saitetik egindako estudioaren arabera, berriz, eraikuntzak berak ez ei dauka monumentu handien adinako garrantzirik, baina han eta hemen jauregia



Museo Eskolak eraikin berria izango du

osutzen duten elementuek, zutabeek, dekorazioek eta, batez ere, etxeak daukan historiak leku pribilegiatu bihurtzen dute Ibarraundi. Orain, zaharberritze

proiektuak duen helburu nagusia da Museo Eskolak dituen premiei erantzutea; hori dela eta, horren arabera egokitu beharko dira lanak. Historiaurretik Aro

Modernora arte jakin beharrekoak –Isabel Guridik hain ondo gordetzen dituenak– leku handiago eta hobean izango dira ikusgai 2003ko irailetik aurrera.

*Aurreikusitakoaren arabera, datorren hilean hasiko dira zaharberritze lanak egiten*

*Eskolak dituen premiak hartuko dira kontuan lanak egiteko orduan*

*Arduradunen esanetan, 2003ko irailean amaituko dira Ibarraundiko lanak*

### HERRITARREN HITZA / Joxerra Zubizarreta

## Zer-nolako etorkizuna nahi dugu?

Bada denbora bat gai honekin bueltaka nabilela, eta egia esan gero eta zailago egiten zait asmatzea etorkizuna nola bideratuko dugun.

Alde batetik kezkatuta nago gure herrian sumatzen den giro "pasotarekin". Badirudi, dena besteara izan behar dela ardura, gaiak aurrera ateratzeko. Edo nirekin behintzat ez kontatu da, sumatzen dudana giroa. Zergatik? Eskoriatza dela eta ez dela, gero eta kritika gehiago entzuten ari naiz.

Eskoriatzan ez omen dago ezer ez, herri anarkoa omen da, hasi bai proiektu berriak baina

berehala desagertzen omen dira...

Eta irteera non dago? Guretariko bakoitzak zer da egiten duguna gure herriaren alde?

Egia esan erraza da zezenak barreratik ikustea eta are errazagoa besteok egiten dutenaren inguruan ezpala bat ateratzea, baina bustitzea edo eta inplikatzeko? Hori zailagoa da, gogorragoa, eta bada ez bada ez dut egiten. Aspaldi leku guztietan pertsona beretsuak



**"Hartu dezagun konpromisoa. Zer egina badago eta"**

ikusten ari naiz, eta gainontzeko guztiak non daude? Aldaketa jenerazionala inoiz emango ote da?

Dena den, zorionez dena ez da ezkorra, badira hainbat esperientzia oso aberasgarriak direnak gure herrian eta euroi esker nolabaiteko mugimendua

sumatzen da. Nire zorion beroena eta animu abegikorrena. Hala eta guztiz ere, gure herrian Herrigintza dezente

kostatu izan da, eta euskaraz, edo eta euskal kulturaren aurrera egitea zama handia izan da.

Eta gerora zer gertatu behar zaigu? Norbaitek aspaldi esan omen zuen, Herri baten etorkizuna bere hizkuntza eta ohiturak mantentzen dituen dela, eta horretan eskoitzarrok zerbait egin beharrean gaude.

Etorkizun global honetan gure ikurrak markatzen ez baditugu, nork egingo du gure alde? Noren zain egon behar omen dugu?

Hartu dezagun konpromisoa. Zer egin handia dago, apurka-apurka lortzeko gai izango ote gara?.

### LABUR

## Istripua izan zuen herriko eskiatzaile batek

Herriko 55 eskiatzaile Lu Ardidenen izan ziren aurreko asteburuan. Zapatuan, pista tara heldu eta berehala, P.M. 29 urteko eskoriatzarra jaus egin zen eta Lourdesko ospitale batera eraman zuten. Hantalesa apurtuta zuela-eta, ospitaleratu egin nahi izan zuten. Gaztea hotelera bueltatu zen baina gauean ondoezik jarri zen eta ospitaleratu egin zuten. Besoa ez dauka hautsita, baina arazoak ditu bosgarren ornoan. Txagorritxun ospitaleratu zuten, baina ondo dago



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea	943 71 44 07
Udal Bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultur Etxea	943 71 46 88
Gizarte-Laguntzailea	943 71 31 36
Kiroletxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Jose Arana-Almen Ikastol.	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo-Eskola	943 71 54 53
Axtroki?	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxia	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde-Ospital (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze-Goria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
Pesa (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**HAMABOSTALDI KULTURALA**

Luis Ezeiza eskolan ekitaldi kulturalekin jarraitzen dute: ipuin kontaketak, antzerkia, hitzaldiak eta tailerrak izango dituzte

**URDELARDEO EGUNA**

Osteguna, hilak 7. Goizean, ikastetxeetako umeen kalejira, eguerdian, plazan, txistorrada, eta arratsaldean, umeentzako jaialdia eta ondoren txokolate jana.

**SANTAGEDA MUTILAK**

19 kinto izango dira aurten. 4an baserrietan eta Gatzagan izango dira egun pasa. 5ean, arratsaldez, plazan dantza egingo dute.

**AXTROKIRENAGENDA**

**TORTOLIS LUDOTEKA LANGILE LAGUNTZAILE BILA**

Ludotekan aritzeko langile laguntzaileak behar du Axtroki Elkarteak. Interesatuta zaudeten guztiok deitu arratsaldez 943.714921 zenbakira.



**Igeriketa ikastaroa**

Ostiralean bukatu zuten Jose Arana ikastolako 5 urteko ikasleek kiroldegian egin duten igeriketa ikastaroa.

Iaz, 4 urterekin, ekin zioten ikastaroari. Ana Bruña begiralearen arabera, "batzuek huts-hutsetik ekin zioten, beste batzuk, berriz, igerian zekitela etorri ziren", beraz, ikasleen aniztasunari erantzuna ematea da bere helburua.

Lau urterekin hasten dira ikasleak igerilekura joaten, eta zortzi orduko ikastaroa izaten dute urtero. Datorren urtean beraz, talde berberak hobetze ikastaroa izango du. Umeak pozik azaldu ziren uretan, bat baino gehiago nekatu zen arren.

Herriko ikasle guztiak izaten dute Foru Aldundiko laguntzei esker igerian ikasketeko aukera.

**HURRETIK/Andoni Bengoa · Axtrokiko lehendakaria**

*"Herritarrari esango nioke euskaraz egin dezala beti, bai etxean eta kalean. Kontzientzia har dezala"*

**A**ndoni Bengoa ondo azagutzen du 10 urte bete berri dituen Axtroki Euskara Elkarteak, bera baita sorreratik elkarteari tinko eusten dion kide-etako bat.


**Zer nolakoak izan ziren elkar-tearen hasierak?**  
Lehenengo deialdian 25 lagun bildu ginen. Elkarteak egituratu guran eta inguruko beste elkarteekin harremanetan, hainbat lan talde osatu genuen.

**Baina arazoak hasi ziren?**  
Denbora gutxian lan taldeak indarra hartu beharrean, indarra galtzen joan ziren. Taldea desgiteko zorian egon ginen. Baina orduan jende berria etorri zen, eta xume bada ere, lanari ekin genion.

**Zeintzu proiektu bultzatu**

**ditu 10urte hauetan Axtrokik?**  
Herrian, jaien batzordea batetik, eta kanpoko ekintzak bultzatzen zituen taldea bestetik (Korrika, Ikastoletako jaiak, Argia eguna...) abiarazi, eta proiektu berriak landu ditugu. *Zebarri* bera, Tortolis ludoteka ere sortu dugu eta Goiena eta Topaguneko partaide izatera ere heldu gara.

**Nolako harremanak dituzue beste elkarteekin?**  
Debaguneko partaide gara. Topagune elkartean ere bi urte badira bazkide garela, Goienako bazkide ere bagara. Harreman hauei esker hainbat ekintza bultzatu ahal izan ditugu; begirale ikastaroa, edo eta Kultur Errotaren barruan



ekitaldi ugari. Herrian ere, Euskara eta Kultur batzordeetan parte hartzen dugu.

**Zertan aldatu dira ordutik euskara elkarteak?**  
Asko garatu dira. Batzuek, Goienak eta Txatxilipurdik adibidez lekuko, enpresa itxura hartu dute. Baina elkarte guztiak ez dira berdin garatu, noski. Alde handia dago elkartetik elkartera.

**Zer falta zaio Axtrokiri?**  
Herrian presentzia gehiago izatea. Bazkideekiko harremana handitzea eta lan taldean ari garenon errotazioa izatea. Barne dinamika arinduko duen langile bat beharrezkoa litzateke.

**Zer esan herritarrari?**  
Euskaraz egin dezala, beti!

**Villar**  
Ileapaindegia

Olazar auzoa, 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA

SAION DE BELLEZA  
OSASUNA ETA EDERGINTZA

**DORLETA**

Aranburuzabala, 22 behea  
ESKORIATZA  
Tfnoa.: 943 71 51 20

**ALZA**

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3  
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540

# Aratusteen ondoren jokatuko dira pilotako finalak

AINZANE GARDOKI

Guztira 10 bikotek hartu dute parte txapelketan. Otsailaren 16an jokatuko dira finalak. Orduan, herriko lau pilotari gaztetxok ere parte hartuko dute. Gero, lehenengo lau postuetan zeintzuk geldituko diren erabakiko da. Ondoren, afaria egingo dute pilotariek.

Arduradunek finalerako eguna jarri badute ere, joan den asteburuan partidu bi soilik jokatu ziren. Emaitzak: Agarre-Ina 22, Artabilla-Jon 12; Txarrantxa-Mikel 22, Unai-Jose 17.

J.I. Beloki antolatzailearen arabera, oso giro ona izan da txapelketa osoan, baina txapelketa moteltzea eragin duen zerbaitekin egin dute topo: "Ez dugu jakin partidu egunak errespetatzen; hau da, bikoteren batek ezin bazuen jokatu, aste osoa eman zaio partidua jokatzeke. Partidu guztiak izan behar ziren jokatuta aste honetarako, baina, esandakoaren ondorioz, partidu asko gelditzen dira jokatzeke. Horregatik, gainera, 3. eta 4. postuak kolokan daude".


## FINALAK, OTSAILAREN 16AN

Aratusteen osteko zapatuan jokatuko dira finalak. Lehenengo partidua herriko lau pilotari gaztetxok jokatuko dute. Gero, 3. eta 4. postuak

erabakitzeko partidua izango da. Finala Unaik eta Belokik Sasiainen eta Haritzen kontra jokatuko dute. Horren ondoren, pilotari guztiak elkarrekin afaria egingo dute: "Lehen aipatutakoaren arabera, hantxe aztertuko dugu, guztion artean, zelan joan den

txapelketa eta datorren urtetarako ezer aldatu beharko dugun edo ez", dio Belokik. Hamar bikote ibili dira hasieratik. Batzuk beste batzuk baino hobeto ibili badira ere, Belokik esandakoaren arabera, esku ugarik min hartuta bukatu du: "Gehienok izan

dugu eskuetako mina. Unai, Artabilla eta Jon tako barik ibili dira, eta beste guztiok ikusi dugu zer den hori. Nahiz eta entrenatzen ibili, urtetik urtera jokatzen dugu gehienok pilotan, eta hori, azken baten, igarri egiten da horrelakotan."



Otsailaren 16an jokatuko dira pilota txapelketako finalak.

AINZANE GARDOKI

## BOTEPRONTOAN



## Odix Alonso

Ikaslea

Gatzagako pilota txapelketa adi jarraitzen dihardu Odixek. Hark ere txiki-txikitatik jokatzen du pilotan. DBHko lehenengo mailan dabil, eta asko gustatzen zaio mendira joatea.

### Pilota gustuko duzu.

Oso. Hemengo txapelketako partidu bakar bat ere ez dut galtzen. Aita eta Agarre ditut gustukoak.

### Profesionaletan, zein gustuko?

Titin, bolea asko eramaten dituelako. **Matematikak ala Heziketa Fisikoa?** Heziketa Fisikoa. Matematiketan burua kantsatu behar da.

### Nagusitan, zer izan nahi duzu?

Ingeniaria.

### Izan duzun irakasle onena?

Gurutze, baita Karmele ere.

### Musika talde bat?

Ez dut oso gogoko musika.

### Denbora librean zer egiten duzu?


Irakurtzea gustatzen zait, baina, batez ere, frontoian pilotan jokatu, bizikletan ibili eta mendira joatea gustatzen zait.

AINZANE GARDOKI

FAGOR



Fagor Ederlan, S.Coop



MONDRAGON  
AUTOMOCION

## AUTOENDAKO OSAGIAIAK

Gaztainadui, 42 • 20540 ESKORATZA • Tel.: 943 71 90 00



MIRENTXU

## TABERNA

Kafe goxoa hartzeko

Tel.: 943 71 41 67



ILEAPAINDEGIA  
ESTILISTAK

## LA MODE APAINDEGIAN, INTERESATZEN ZAIZUN ZERBAIT DAUKAGU

La Mode apaindegian aurrerapausoa egin dugu. Aukera ematen dizugu gure ile apaindegian kolorea erosi eta etxean zuk zeuk emateko. Eta abantaila bat: gure profesionalen aholkua zein kolorek ondo ematen dizun aukeratzeko orduan, zelan erabili eta apaindegi baten profesionaltasun bermea.

### • HASIERAKO ESKAINTZA

KOLORE TUTUA + OXIDATZAILEA + ESKULARRUAK + KOSMETIKO-GERUZA HODIA: 1.230 pezeta bakarrik (7,40€)

### 2002rako DESKONTUAK




- Urtarrilean eta otsailean, %50eko deskontua metxetan eta distiretan.
- Pertsona nagusi baten ile-mozte bakoitzeko, ume baten ile-mozte bat opari.
- %30eko deskontua orrazketetan eta moldeatzeetan...

Etorri eta ikusi. Deskontu gehiago zure zain.




### ETA GAINERA:

- Solariuma
- Luzapenak
- Ile-batzeak
- Eta abar

# GRUPO **RKUZ** 1950-2002



*Arkauz zure etxea da.*



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABAETA




Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABAETA





*%10  
eta  
%50  
arteko  
beherapenak*

*Emakumezkoen, gizonezkoen  
eta gazteen arropatan*



*ANNA'S*

*Iparragirre 4, ARETXABALETA*